



Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 52. edizioa abenduaren 6tik 10era arte izango da. ▶8

Umeei begirako Hirukira Olgetan denbora-pasen atala duzue azkenengo orrialdeetan, hilabete amaiera denetan legez. ▶22-23



hiruka

Uribe Kostako astekaria



112. zenbakia
2017ko
azaroaren 30etik
abenduaren 13ra arte



«Emakume bakarra izan naiz gizonen munduan»

Elena Caballero *La basu* rap-abeteslariak ikastaroa emango du Plentziako Danontzat gaztetxean, abenduan. ▶ 18-19

GEHIGARRIA ABENDUAK 3

Euskararen Eguna



Domekan, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna izango da. Horren harira, hainbat ekimen antolatu dituzte euskalgintzak, zenbait elkartek eta erakundek. Euskararekiko atxikimendua adierazi eta hitzunen aktibazioa eragin gura dute. ▶9-16

AGENDA LEIOA

Miss Karaoke antzezlan



Euskaltzaleen Topaguneko Udagoieneko Ostera zikloak Metrokoadroka eta Pez Limbo taldeen obra aurkeztuko du. ▶17

KIROLAK SOPELA

Pilota-festa sopedotarra

Kaiolako finalak jokatuko dira hilaren 6an, Sopelan. Lehenengoz, an drazko pilotariak banakakoan lehiatuko dira. ▶20

Abenduaren 15era arte izena eman daiteke egitasmo turistikoan

Turismo Zerbitzuak aukera berria eskaini gura du enpresa turistikoak Getxon gozatzeko Planak 2018 egitasmoari atxiki daitezkeen. Interesa dutenek abenduaren 15era arte izena eman ahal izango dute. Ekimenean parte har dezake, doan, bertakoa den edo Getxon jarduera nagusia duen edozein enpresak. Bisitariei eta turistei zerbitzuak edo esperientziak eskaini ahal dizkietenak ere atxiki daitezke. Aurten, ekimen horren bidez, bertoko 254 enpresaren eskaintza turistikoa bultzatu eta zabaldu da, Getxoko Udalak jakinarazi duenez. ◀

Gabon Zaharrean herri-jaialdia egingo dute Algortan

Urteari agur esateko eta berriari ondoetorria egiteko jaialdi jendetsuak antolatu dituzte Algortako gazteek azkenengo urteotan biotan. Hirugarrenez errepikatu guran, datorren Gabon Zaharrean ere jaialdia egingo dute, San Nikolas plazan. Hori antolatzeko, bilerak egingo dituzte; lehenengo azaroaren 26an egin zuten. ◀

Aurrekontu handiagoak aurreikusitako dituzte

Getxoko Gobernu Taldeak datorren urteko aurrekontuen aurreproiektua aurkeztu die udal-talde denei.

Datorren urteko aurrekontuen aurreproiektua aurkeztu du Getxoko Gobernu-taldeak. Ogasuneko Informazio Bartzordean egin zuten, talde politiko denekin aurrean. Azaldu duenez, alderdi denek dute helburu bera: akordio batera heltzea aurreproiektua osoko bilkuran onartzeko. Aurreikusitako diru-sarrerara kopurua 100,36 milioi eurokoa da, hau da, 2017ko aurreproiektua baino % 3,2 handiagoa; eta 2016koagaz alderatuta, % 7,5 handiagoa. Udal-iturriek azaldu dutenez, hobekuntza hori Udalkutxak emandako diru-sarreraren igoerari esker izan da. Udalak kudeatzen dituen sarrerak mantendu egingo dira, igo barik. Aldiz, maileguren amortizazioa amortizatzeke dagoen



info+: www.getxo.eus.

saldoaren % 19,87koa izango da. Aurreproiektuko gastuen eta inbertsioen aurreikuspenak, pertsonal-gastuei dagokienez, soldaten gastuaren % 1eko igoera izango du; gizarte-zerbitzuen zereendaren garapena barne hartzen du;

eta agintaldi honetan gaitu diren dirulaguntza berrietako batzuk mantenduko ditu, barbarako eskolako materiala erosteko familientzako laguntzak eta herriko gazteen emantzipazioa bultzatzeko alokairuetako laguntzak. ◀

GETXOKO IV. BOOK TRAILER LEHIAKETA

MAIATZAREN 11 RA ARTE

OINARRIAK:
www.kalabazan.com

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

portu zaharra bar

Portu Zaharra Kalea 25
48991 Algorta-Getxo
Tf. 94 468 29 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

TOM TABERNA

Santa Eugenia Kalea 13
ERROMO

San Nikolas IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala Demokratikoa
Euskalduna Autonomoa
Plurala Hezkuntza eta kudeaketa ereduak

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta - Getxo
Tel: 944 305 478 • ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus

Getxo



Hitzarmena Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak sinatu dute.

Gizarte Zerbitzuen hitzarmen berria

Eskualdeko eguneko arreta-zerbitzua eta gaueko harrera-zerbitzua Getxon lekutuko dira etorkizunean.

Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak administrazio-hitzarmena sinatu dute. Lau urteko iraupena izango du horrek, eta lan egiteko modu berria arautuko du, Mankomunitatea osatzen duten udalerriaz elkarlanean. Alde batetik, bazterketa-egoe-

ran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua eskaintzen dute. Hori Sortarazi elkartearen bitartez eskaintzen da, eta 20 bat erabiltzaile zaintzen ditu hilean. Bestetik, gaueko harrera-zerbitzua ere eskaintzen dute, 19 erabiltzailearentzat. Gainera, tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzua ere bada-go, 13 leku dituen, baztertzeko arriskuan daudenentzako. Aurreikusita dago eguneko arreta-zerbitzuaren eta gaueko harrera-zerbitzuaren egiturak Getxon lekutzea, nahiz eta azken hori orain Berangon egon. ◀

Segurtasun-hesi berria ipintzen hasi dira Tosu landan

Joan den astelehenean, azaroaren 27an, beharginak hurreratu ziren Tosu landara, hondeamakina batez eta Ertzaintzako auto biz lagunduta. Hala, obra-eremua berriro ere hesitzeko beharrak abiarazi zituzten. Ostera, hurrengo egunean, Tosu Betirako mugimenduko ekintzaileetako batek lurrera kateatu zuen bere besoa, eta obrak gel-

diaraztea lortu zuen, beste egun batez; eguna amaitu baino lehen, bere kabuz askatu zen. Eguaztenean epaiketa azkarra izan zuen, Ertzaintzak identifikatutako beste kide bigaz batera. Egun horretan ere obrak abiarazi zituzten berriro, landaren inguru osoa hesitzeko, «auzokideek erabiltzen dituzten ortuak ere bai», ekintzaileek azaldu dutenez. ◀

Zarama-ontziak ipini dituzte Negurin

Hondakinak batzeko etxez etxeko sistema baztertu eta ohiko edukiontzia jarriko ditu Getxoko Udalak.

Neguri eta Zugatzarte inguruetan edukiontzia ipintzeko erabakia hartu du Getxoko Udalak, hondakinak batzeko. Azkenengo asteotan eremu bi horietan egindako azterketak amaituta, Hondakinak Kudeatzeko Foroak erabaki du Negurin eta Zugatzarten zaramaren etxez etxe batze-sistemaren ordean udalerriko gainerako lekuetan dauden edukiontzia ipintzea, «irigarritasun, jatorrian biltzeko aukera eta distantzia irizpide berberekin», Udalak azaldu duenez. Hala ere, jakinarazi dute etxez etxe batze-sistema ipini ahal

izango dela hala gura duten auzuneetan. Hondakinak batzea atezainen bidez eta kaleko edukiontzia kentzeko zerbitzuaz arduratzen diren enpresa bidez koordinatuko da, gaikako batzea areagotzeko, besteak beste. Neurri hori aztertu egingo da, beste jabeekideen er-kidego batzuetara zabaltzeko, horiek hala eskatuko balute, eta zerbitzu hori ematea bideragarria den jakiteko.

Neguri eta Zugatzarte inguruetan 40 irla ipiniko dituzte. Horietan, honako edukiontzia hauek egongo dira: 53 errefusarentzat, 42 papera eta kartoiarentzat eta beste 41 ontzientzat. Ostera, organikoa batzeko edukiontzia marroia daborduko eskaria dagoen lekuetan kokatu dute, eta apurka-apurka irlatan egokituko dute. Hala, udalerrian, 464 irla egongo dira eta 2.341 edukiontzia ipiniko dira, denera. ◀

Zergen eta tasen ituna ez dela beteko salatu du Getxoko EH Bilduk

Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) 2018. urterako zerga eta tasen proposamenik ez duela aurkeztu deitoratu du EH Bilduk. Ondorioz, datorren urteko zergen eta tasen eguneraketarik ez dela egongo salatu du koalizio abertzaleak. Alderdi ezkeriak azaldu duenez, tasen eta zergen prozedurak hila bete luzeko izapideak eskatzen ditu, eta zerga garrantzitsuenetan ordenantza-aldaketak indarrean sartu behar luke 2018ko urtarrilaren 1a baino lehenago, «eraginkorra izateko». Hala, daborduko hori «ezinezkoa» dela ondorioztatu du; «horren ondorio da, berriro ere, EAJk eta PSEk 2016. urtean sinatutako akordioa ez dutela beteko». ◀

Denda berriak zabaltzeko laguntzak proposatu ditu PPK

Udalerrian komertzio berriak sortzea errazten laguntzeko plan bat aurkeztu du Getxoko PPK. Popularrak salatu dutenez, gero eta denda gutxiago dago udalerrian. Horri aurre egiteko eta dendak ipintzeko, lokalaren alokairuaren % 30 ordaintzeko laguntzak proposatu dituzte, hilean 400 eurora artekoak. Modu berean, inbertsioak egiterakoan zenbatekoaren % 30 Udalaren esku uztea ere proposatu dute, 5.000 eurora arteko laguntza emanda. Gainera, denda zabaltze eta lehenengo urte bietan zabor eta estolderia tasen salbuespena izatea proposatu dute, baita zabaltze eta aktibitate lizentzia ordaintzearena ere. ◀



ABENDUAREN 6tik 10era

52. DURANGOKO AZOKA



BIDAIATU SORMENAREN LURRALDERA

www.durangokoazoka.eus

Erandio

Lur azpiko parkingaren lanak, abian

Astrabuduko anbulatorioko parkinga itxi dute, behin betiko. Bertan, beste aparkaleku bat ipiniko dute, lurraren azpian, orain dagoenaren hirukoitza, baina ordainpekoa.



Auzoko gidariak are zailago dute orain autoa kalean uztea.

Astrabudian autoa uztea ez da erraza, eta are gutxiago joan den asteleheneetik. Egun horretan itxi zen anbulatorioaren ondoko lurreko parkinga; bertan 80 auto sartzen ziren. Erandio-ko Udalak azaldu duenez, leku berean eraikiko da lur azpiko beste aparkaleku bat, zabalagoa, 260 ibilgailu uzteko modukoa. Halere, herritarrek hamabi hilabete itxaron beharko dute, lanak amaitu arte. Udalak azpimarratu duenez, 260 leku horiek salmentara aterako dituzte, bertako auzokideek erosteko aukera izateko, «merkatuak ipinitako baino prezio merkeagoan». Eskaintza horrek, baina, ez du konbentzitu bertako Parkingari Konponbidea Orain plataforma. Talde horrek kritikatu du Udalak «doako aparkalekuak kentzen ditu bata bestearen atzean eta ordainpeko garajeengatik ordezkatzan» dituela. Hala, joan den

barikuan batu ziren herri-bileran, anbulatorioko gaia jorrazteko. Udalari doako aparkalekuak berrezartzea eta gaiaren gaineko gardentasuna eskatu dizkiote, besteak beste.

Bitartean, aurrera doaz lur azpiko obrak eta eurakaz batera goian plaza ipintzeko proiektua. Udal Gobernuak iragarri du «Astrabuduko birikia» izango dela plaza hori etorkizunean, bi mila metro koadroduna.

Bestalde, beharrek zenbait aldaketa eragin dituzte auzoan. Hala, barikuetako azoka Andrés Mendiguren plazara lekuz aldatu dute. Modu berean, Leioako campusera doazen autobusek Iturrimingo zeharkaleko garelakuak kendu dituzte ibilbidetik. Erandio Busaren kasuan, garelakua Ignacio Aldekoa ikastetxearen aurrera aldatu dute. Eskola-autobusak, ostera, Etxegorri kalean geldituko dira, Consulado de Bilbao kaleko izkinan. ◀

Aitentzako ikastaroak egingo dituzte, umeak jagoteko

Erandioko Udalaren Berdintasun Arloak aitentzako tailerra antolatu du, umeentzako masajeen eta afektibotasunaren gainekoa. Erakundeak azaldu duenez, tailer horren bitartez aitek euren «seme-alaben hazkuntzarekiko eta hezkuntzarekiko inplikazioan sakontzen» ahaleginduko dira. Hala, «modu aktiboan» kokatuko dira, «tradizionalki ezarritako aita-eginkizuna eraldatzeko». Ekimena berbaldi baten bidez aurkeztuko dute, datorren abenduaren 13an, eguaztenean, Bekoa ikastetxean. Ostean tailerra leku berean izango da, barikuetan, urtarrilaren 12tik 26ra. ◀

Akordeoi-orkestrak 25. urtemuga musika jotzen ospatuko du

Erandioko Udal Musika Eskolako Akordeoi-orkestrak 25 urte beteiko ditu laister. Urtemuga hori ospatzeko, kontzertu bat antolatu dute, abenduaren 1ean, barikuan. Hitzordua Astrabuduko Josu Murueta kultur etxeko ekitaldi-aretoan izango da, 19:00etan. Sarrera doakoa da, eta sarrera librea izango da aretoa bete arte. Akordeoi-orkestra Edurne Zorrozuak sortu zuen, eta berak zuzendu du azken 25 urteotan. «Akordeoi-orkestrak Musika Eskolako jarduera ugartan parte hartu du, baita udalerriko jardueretan ere», nabarmendu du Itziar Galdardi musika-eskolako zuzendariak. ◀

Aurrekontu parte-hartzaileen emaitzak plazaratu dituzte

Bigarren urtez, Erandioko Udalak prozesu parte-hartzailea antolatu zuen, joan den irailean eta urrian, aurrekontuetan herritarren ekarpenak jasotzeko asmoz. Iaz egin zuen legez, aurten ere jasotako emaitzak argitaratu eta ezagutarazi ditu: 216 inkesta jaso dira, horietako 98 Internetez, eta beste 118 auzoetan ipinitako postontzi berezietan. Emakumeek gizonen baino gehiago parte hartu dute, eurek bete baitituzte inkesten %58. Denera, 520 ekarpen batu dituzte. Gehien errepikatu den eskaera EHUK Leioan duen campusaren ondoko pista zaharberritzea izan da; 17 he-



Atletismoko pista hobetzea gura dute.

rritarrek proposatu dute hori. Ostean, gaztetxe bat eskatu dute 9 lagunek, eta beste bik zehaztu dute Kalezulo gura dutela. Aparkalekuak gura dituzte zortzi pertsonen; estalibako igerilekuak, zazpik; eta enplegua, seik. ◀

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
Algortako etorbidea, 78 ALGORTA - 94 491 27 34
Gura izanex gero, etxera erango dizugu egunkaria!

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK
AINGARA
Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hertz-Klinika
Arantza Etxebarria
· Odontologia orokorra
· Ortodontzia
· Periodontzia
· PADI
Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

prentsa · aldizkariak
ITXASGANE
Getxoko kirol portua - 94 491 53 21

GURE ETXEA
taberna
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GAVRKO
1967
50. URTEURRENA
GIZONENTZAKO MODA
ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Leioa

Oinarriak ikusteko: www.leioa.net.

Langabetuak hartuko dituzte

Sei hilabeterako 16 pertsona kontratatuko ditu Leioako Udalak laster, Lanbideren bitartez.

Udalerriko 16 lanbako kontratatuko ditu Leioako Udalak aldi baterako, 2017ko Tokiko Enplegu Planaren markoaren barruan. Horretarako, Behargin-tza Leioaren eta Lanbideren laguntza izango du Udalak. Kontratatuko dituzten beharginek honako hiru programa hauetan parte hartuko dute: auzoko laguntzaileak; udal-azpiegiturak eguneratu eta modernizatu; eta udalerriko ardatz estrategikoak bultzatu.

Kontratu denak obra edo zerbitzuko aldi baterakoak izango dira, eta 6

hilabeteko iraupena izango dute. Auzoko laguntzaile-lanetan jarduteko 11 pertsona kontratatuko dituzte; horien artean, honako profil hauek dituztenak hartuko dituzte: lau auzo-laguntzaile, arotz eta arotz-espezialista bana, margolari bi eta birziklapena ikuskatzeko pertsona bi. Udal-azpiegiturak eguneratzeko eta modernizatzeko arloan, kudeaketa geografikoan aditu bat eta elektrikari bat kontratatuko dituzte. Eta udalerriko ardatz estrategikoak bultzatzeko komertzioa, turismoa eta gazteria arloko tekniko bana hartuko dituzte. Jardunaldi denak % 100 baino baxuagoak izango dira, % 72,5 eta % 87,5 artekoak. Kontratuotako bat lortu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan. ◀

Aldatu Rock musika-jaialdia egingo dute, abenduaren 2an

Aurten ere egingo dute Leioan Aldatu Rock jaialdi solidarioa. Datorren abenduaren 2an izango da jaialdiaren III. edizioa, udalerriko Prest Aretoan. Antolatzaileek iragarri dutenez, Deborah Riff, Ansia, Northen Mist, Dr.Hyde eta Inner Turbulencea musika-taldeek joko dute jaialdi horretan. Ekitaldiaren arduradunen arabera, musika ere bitarteko edo baliabide bat

izan daiteke; hala, errefuxiatuen alde egiteko bidetzat hartu dute jaialdia, berriro ere. Adierazi dutenez, bertan batuko den diru dena Epiyblas Elkar-tea errefuxiatuen alde garatzen dabilen proiektura bideratuko dute. Jaialdia 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da. Hala ere, askotariko zozketak eta diru-batzeak egingo dituzte diru lortzeko, kontzertuen bitartean. ◀

Maitasun Gutunen Sariak antolatu du Kultur Leioak

Urtero legez, Kultur Leioak Maitasun Gutunen lehiaketa antolatu du aurton ere. XIX. edizioa izango da, eta gura duten lagun denek parte hartu ahal izango dute, lau kategorietan bananduta: 18 urtera artekoena, 19 urtetik 35 urterakoena, 36 urtetik 55 urterakoena eta 56 urtetik gorakoena. Parte-hartzaile bakoitzak gura beste gutun aurkeztu ahal izango ditu, euskaraz zein gaztelaniaz. Lanok aurkezteko epea abenduaren 29ra arteko izango da, Kultur Leioan. Gutun bakoitzak eduki beharreko ezaugarriak dagoenez, honako hauek: orri bi hartuko ditu gehienez, alde bakarretik idatzitakoak; paperaren ezaugarriak (kolorea, usaina eta ehundura) norberak aukuratutakoak izango dira. Sariak 2018ko otsailaren 9an emango dira, 19:00etan, Kultur Leioan. Ekitaldian, saritutako lanak irakurriko dira. ◀

info+: www.kulturleioa.com

Oinarriak

Parte-hartzaileak

A kategoria: 18 urtera artekoak.

B kategoria: 19 urtetik 35 urterakoak.

C kategoria: 36 urtetik 55 urterakoak.

D kategoria: 56 urtetik gorakoak.

Sariak

1. saria: 250 euro, garaikurra eta diploma.

2. saria: 125 euro, garaikurra eta diploma.

Lanak aurkezteko epea

2017ko abenduaren 29ra arte, Kultur Leioan (Jose Ramon Aketxe plaza, 11).

Lekura joanda edo posta arruntez bidalita aurkeztu ahal izango dira, «Maitasun Gutunen XIX. Lehiaketa» ipinita.

Oinarriak

Beste lehiaketa batean saririk jaso bakoak, jatorrizkoak eta argitaratu bakoak izan beharko dute gutunek; hiru kopiatan aurkeztuko dira eta izenburua eta izengoitia bakarrik izan beharko dute.

Ipuin-kontalaria, gaztelaniaz, Kultur Leioako entzungelan



Cataplina ipuin-kontalaria egongo da.

Datorren abenduaren 14an, egue-nean, etxeko gaztetxoentzako ekitaldi berezitoa antolatu du Kultur Leioak. Hain zuzen ere, egun horretan, Cataplina ipuin-kontalariaren saioa egongo da, gaztelaniaz, haur-liburutegian. Ekitaldia 5 eta 9 urteen arteko neska-mutulei begirakoa da, eta horretaz gozatu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute, leku-kopurua mugatua izango baita. Saioa arrastiko 06:00etan hasiko da, eta sarrera doakoa izango da. ◀

Birziklapen-politikaz kexu da EH Bildu koalizio ezkertiarra

Bosgarren edukiontzia martxan ipini zenez, Leioako birziklapen-kopuruen datuek «agerian» uzten dute birziklapen-estrategia «ez dela nahikoa» EH Bilduren arabera. Edukiontzi horretan batutakoa % 1,17koa dela azaldu dute, «azken urteetako baino baxuagoa». Gainera, aurten kanpaina komunikatiboa alde batera uzteak emaitzetan «beherakada» nabarmena eragin duela deitoratu du. Horren aurrean, Gobernu-taldeak adierazi du «oso serio» hartzen duela birziklapenaren kontua, eta datuak hobetzeko «behar beste» kanpaina eta ekintza egiteko «prest» dagoela; azaroan pertsona bi kontratatu dituztela jakinarazi du, kanpaina berri bat hasteko. Bosgarren edukiontzia harira, urtea amaitzeko hilabete biko datuen faltan, iazkoagaz alderatuta, 10.000 kilo zarama baino gehiago batu direla azaldu du, «datuak ezin dira erdipurdi eman». Akordioetara heltzeko prest daudela iragarri dute alde biek. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egin zaitez
hirukalagun!



Urtean
35€
baino ez
Trukean:
zozketak,
sariak ia astero,
astekaria eguaztenero...

Sopela

Institutu berria egin gura dute udalerrian

Udal Gobernu Taldeak bi milioi euroko diru-partida ipintzea proposatu du, 2018ko aurrekontuei begira. Hala ere, Zipiriñe ikastetxeko gurasoak mobilizatzen hasiko dira.

Sopelako Udaleko Gobernu Taldeak azaroaren 21ean zabaldu zuenez, egun horretan aurkeztu zieten EAJk eta PSE-EEK 2018ko aurrekontuen proposamena gainerako talde politikoei dagokion batzordean, arrastian. EH Bilduk hori «gezurtatu» egin du eta txosten hori «alderdiei esan baino lehen komunikabideetara bidaltzea» leporatu die agintari sopoloztarrei: «hedabideetan, eguaztenean agertu ziren aurrekontuen ildo nagusienak eta guri eguenean, 20:30ean, esan zizkiguten», aipatu du koalizio ezkertiarak. Gora-beherak alde batera utzita, udal-arduradunek egindako proposamenen artean, bi milioi euro bideratu gura dituzte Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa hartuko dituen institutu berri bat eraikitzeko eta beharrezkoa den lursaila egokitzeko. Hala, Iberre institutua eskola moduan erabiltzeko liberatu, eta, horrela, Sopelan, eskola bi egoteko eskaerari erantzuna emango litzaioke. «Honela, Sopelak sopoloztar denei kalitatezko heziketa zerbitzuak eskaintzeko beharrezko ekipamenduak izango ditu», adierazi du Gontzal Hermosilla alkateak. Daborduko hitzarmena adostu dute Iberreko Eskola Kontseiluak, udal-agintariak gaineratu dutenez. Horrez gainera, laster batzarra egingo dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailagaz.

Hala ere, Iraupen izena daukan Zipiriñe ikastetxeko gurasoen elkarteak antolatutako manifestazioa egitea era-



Iberre institutua txiki geratu zaie sopoloztarrei, eta Zipiriñe ikastetxea ere bai.

baki du: barikuan, abenduaren 1ean, hezkuntza-zentrotik udaletxera arteko bidea egingo dute, 16:45ean abiatuta. Zipiriñeko aita-amen izenean Ignacio Rodriguezek azaldu duenez, «gauza bat delako proposamena aurkeztea eta beste gauza oso ezberdin bat hori betetzea». Iraupen elkarteak ordezkariek gaineratu duenez, «denbora luzea daramagu ikastetxean umeentzako, irakasleentzako eta langileentzako leku nahikoa ez dagoela aldarrikatuz, orain proposamen soil batengatik mobilizazioak alde batera uzteko». Rodriguezen berbetan, «diru-partida hori onartzen bada ere, egin beharko duen bidea luzea eta ko-

rapilatsua da. Udalari, Eusko Jaurlaritzari eta udal-arduradunei ez diegu lasaitzen utziko, gu besoak gurutzaturik ikusita. Azken muturreraino iritsiko gara». Sopelako hezkuntza-zentrotok leku nahikorik ez izatea ez da berria. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak barrakoi bat instalatu zuen Zipiriñe ikastetxean, joan den urriaren akabuan. Horrek ezinezona sortu du ikasleen gurasoen artean; *Barrakoirik ez!* goiburutzat hartuz, mobilizazioei ekingo diete.

Bitartean, EH Bilduk eta Denok Baterak aurrekontuen proposamenaren gaineko iritzia eman dute. ◀

informazio gehiago: hiruka.eus

Sopelako udaltzainen «erasoa» salatu dute txakurren jabeek

Protestei berriro ekitea erabaki du Sopelako Txakurren Plataformak; izan ere, taldekideen berbetan, Udalak txakurrentzako parkea zabaldu duenetik, Udaltzaingoak areagotu egin du abereen jabeenganako «jazarpena». «Txakurra daukaten lagunen bila ibiltzen dira poliziak, animaliak aske egotea debekatuta dagoela esateko. Oraingoz, ez diote inori isunik ipini; baina, baten bat mehatxatu dute ipiniko diotela esanez», adierazi dute. «Getxon, Leioan eta beste hainbat udalerritan, abereak 24 orduz edo partekatutako ordutegian aske eroan daitezkeen gu-neak daude», gaineratu dute. Izan ere, euren ustez, «metro biko uhal bategaz animalia loturik edukitzea tratu txar psikologikotzat hartuta dago»; udal-ardurian jasota ei dago. «Sopela abereen laguna dela esanez harrotzen dira askotan uda-arduradunak», kritikatu dute. Plataformako kideek alderdi politikoakaz batu gura dute. ◀

Umeen jolas-parkeen lanakaz haserre dago Denok Batera

Udalagaz 2015eko abenduan izenpetutako aurrekontu-itunean, umeentzako jolas-parkeetan egiten dabilzan konponketa-lanen antolaketa ere jasota zegoen, Denok Baterak esan duenez. Hala ere, EAJren jokabideak «ondoeza» eta «ezadostasuna» eragin diela adierazi du oposizioko alderdiak. DBren berbetan, «apurtuta» dago lankidetzaren hitzarmena: EAJk «alde bakarrez jokatu» du eta «adostutako baldintzak behin eta berriro urratu» ditu. Gainera, PSE-EEgaz Udal Gobernuan dagoen alderdiak ez ei die erantzun eurek egindako eskakizunei eta proposamenei, Denok Baterak kritikatu duenez. ◀

ARTOLOZAGA
ANAIK
Tailerrak
Mekanika - Karrozeria - Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

BOSCH
Service
Car Service

Jatorrizko bermea mantentzen dugul!

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Iñaki
Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45
Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Plentzia

Trena Plentziara heldu zela oroitzeko ekitaldiak

Ibilgailua udalerrira iritsi zeneko 125.

urteurrena ospatuko dute 2018an; askotariko ekitaldiak antolatu dituzte.

Datorren urtean beteko dira 125 urte trena Plentziara heldu zenetik. Hori ospatzeko eta gertakaria gogorarazteko gogorarazteko hainbat ekitaldi antolatuko ditu Udalak 2018an. Horien denen berri emateko aurkezpena egingo dute abenduaren 1ean, barikuan, Goñi Portal kultur etxean, 19:00etan. Udalak hilabeteak daroatza lankidetzan hainbat pertsonagaz eta erakundegaz, urtemuga biribila ospatzeko ekintzak prestatzen. Daborduko ekitaldi batzuk prest dituzte, denak trenaren munduari, historiari eta Plentzian izan zuen garrantziari lotutakoak. Programa urtarrilaren 15ean hasiko da; eta hilaren 27ra bitartean, 12 bildumatako askotariko ziguilua ikusi ahal izango dira Goñi Por-



125 urte igaro dira trena lehenengo aldiz Plentziara heldu zenetik. © LUIS IGNACIO ALONSO

talen. Otsailean, Areeta-Plentzia trenlinearen gaineko horma-irudia egingo dute Matrailunen. Martxoan, ostera, inauteri tematikoen gaia «Trena» izango da. Apirilaren 23an umeentzako liburu bat aurkeztuko dute. Maiatzean, berriz, Uribe Kosta institutuko ikasleek trenari lotutako askotariko lanak egingo dituzte, eta jendaurrean aurkeztuko dituzte. Ekainean, Lanbro Beltza eleberriz beltzaren topaketaren barruan,

«Trena» gaia jorrazteko mahai-ingurua egingo dute. Uztailean, Mikrofilm Short Festival-eko leitmotiva «Bidaia» izango da eta *videomapping* teknika bidez trenaren gaineko proiektzioa egingo dute. Uztailean, XI. Plentziako lekuko historia jardunaldietan, trenari buruzko hitzaldiak egingo dituzte. Abuztuan, irailean eta urrian ere ekitaldi bana egingo dute. ◀

aniversario125urteurrena.etnoplentzia.com

Berango

Sabino Arana kaleko leku jakin batean ezin izango da aparkatu

Sabino Arana kalea zaharberritze-ko lanen lehenengo fasea martxan ipini du Udalak. Hori dela eta, kale horretako 2. zenbakitik 16. zenbakira doan atalondoetako aparkalekuetan ezin izango da autorik utzi. Neurri hori joan den astelehenean ipini zen indarrean, azaroaren 27an. Eta hala izango da gune horretako lanek iraungo duten artean, udal-iturriek jakinarazi dutenez; lanok zortzi hilabeteko iraupena izatea aurreikusi dute. Lehenengo fase hori gauzatzea Valeriano Urruti-koetxea SLU enpresari esleitu dio Berango Udalak, 1.464.080,53 euroan, BEZa barne. ◀

Gazteak eta bidaiak oinarritzat dituen topaketa egingo dute

Nazioarteko askotariko elkarteak beren beregi ezagutzeko eta hartuemanak izateko bidaiak antolatu ditu Berango Udalak. Esperientzia horiek elkarbanatzeko asmoz, bidaia horietan parte hartu duten gazteen topaketa irekia egingo dute egunean, azaroaren 30ean, Berango Udal kultur etxean, 19:00etan. ◀

Gorliz

Barraskilo-platerik onena, abenduaren 8ko txapelketan

Abenduaren 8an Andra Maria Sor-Atzez Garbia jaieguna ospatuko dute. Gainera, egun horretan, Bizkaiko saltsan egindako barraskiloen X. lehiaketa egingo dute, Eliz plazaren atzealdean. Horretan parte hartu gura dutenek azaroaren 30era arte izena eman dezakete, Sertutxena kultur etxean. ◀



Inguruko igerilekuak erabili ahal izateko diru-laguntzak

Ur-kirolak zein igeriketa-ikastaroak egiteko azpiegiturarik ez dago Gorliz. Hori dela eta, herritarren artean kirol-jarduera horiek sustatzeko asmoz, Udalak diru-laguntzak emango dizkie Sopelako edo Mungia udal-igerilekuetako ikastaroetan izena eman gura duten gorliztarrei. Interesdunei diru-laguntza bana emango diela azaldu du Udalak. Laguntza horren zentzuzkoa kalkulatzeko, arduradunek

honako hau kontuan hartuko dute: Sopelako edo Mungia udal-igerileku horietan ordaintzen dutenaren eta Gorlizko erabiltzaileek ordaindu beharko dutenaren alde, hain zuzen ere. 2017ko ikastaroetako deialdia arautzen duten oinarrien arabera emango dituzte diru-laguntza horiek. Hala, interesdunek abenduaren 12ra arte izena eman ahal izango dute. ◀

info+: www.gorliz.eu

argi
hizki
ak 2017

ARGAZKIETAN
OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
VI. LEHIAKETA

Plentzian, abenduaren 4tik 15era

ERAKUSKETA

GOÑI PORTAL KULTUR ETXEAN (Kale Barria, 2)
Astegunetan, 11:00-13:00 eta 16:30-20:00

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.argihizkiak.eus

Logoak: Udalak, Berango, Gatzaga, Euzko Lehen Unibertsitatea, Bizkaia, epizal, hiruka

hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2017ko azaroaren 30etik abenduaren 13ra arte



hiruka.eus



Aurten ere bost egunean egongo da Euskal Liburu eta Disko Azoka bisitatzeko aukera: abenduaren 6tik 10era arte. © DURANGOKO AZOKA

DURANGO

Euskarazko sormenaren azoka izango da topalekua

Durango Euskal Liburu eta Disko Azokaren 52. edizioan 400 lan berri (257 liburu, 92 disko, 19 aldizkari, 5 bideo eta 27 bestelako produktu) salgai egongo dira; denera, 240 salmenta-postu ipiniko dituzte, Landa-ko Gunean. Gainera, aurten ere, kulturazaleek gozatzeko hamaika kontu izango dituzte aukeran: berbaldiak, kontzertuak, ikuskizunak, tailerrak;

ibilbide luzeko sortzaileak, hasiberriak; argitaletxeak, autoekoizleak, formatu handiko ekitaldiak... Guzti-ira, 200 jarduera egongo dira 700 metroan eta bost minutuko distantzian. Aurten azokara etortzera gonbidatu ditu herritarrek Gerediagaren presidente Nerea Mujikak: «Abenduaren 6tik 10era arte, denon artean bizia emango diogu Sormenaren Lurral-

deari», adierazi duenez. Bestalde, aurten ez da aitortza-saririk emango; azaldu dutenez, «iraganera begira ipini beharrean, etorkizunari begira» ipiniko direlako. Horregatik, Argizaiola Sariaren 25 urteko ibilbideari erreparaso egin eta sortzaile berriei eskainitako sormen-beka bat aurkeztuko dute bertan. ▶

info+: www.durangokoazoka.eus

LEIOA

Zapatutik astelehenera arte, *Handia* ikusteko aukera egongo da

Abenduaren 9an, 10ean eta 11n, Jon Garañok eta Aitor Arregik egindako *Handia* filma ikusteko aukera egongo da, Kultur Leioako entzungelan. Satioak 20:00etan izango dira, eta sarrerak 4,50 euroan salduko dituzte (ikusleen egunean, 3,50 euroan). Mikel Joakin Eleizegiren bizitzaren gaineko filma da, *Altzoko Handia* goitizenez. ▶



BERANGO

Simon Otxandategi abestaldeak saioa egingo du, antzokian

Simon Otxandategi kultur elkarte-ko abestaldeak kontzertua emango du abenduaren 15ean, barikuan, Berango Antzokian. Emanaldia 20:00etan hasiko da; sarrera, doan. 1940ko hamarkadan sortu zen euskal folklorea bultzatzeko helburua daukan taldea; abesbatzaz gainera, dantza-taldea eta joaldunak ere badauzkate. ▶

ANTZERKIA

ABENDUAK 1, BARIKUA

Sex o no sex

18:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Clown-ikusizuna, Virginia Imazegaz.
Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

AZOKAK

ABENDUAK 10, DOMEKA

Azoka solidarioa

11:30 | Nagusien etxeko plaza | Berango
Dohaintzan emandako bigarren eskuak gauzak salduko dituzte; batutako dirua Caritas elkarteari emango diote. 15:30ean itxiko dute.

MUSIKA

AZAROAK 30, EGUENA

Jazzte Borrazte Banda

20:00 | Glass taberna (Areta) | Getxo
Getxon Zuzenean edo Getxo Live! ekimena. Sarrera, doan.

ABENDUAK 1, BARIKUA

Akordeoi-orkestrak, 25 urte

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Erandioko Udal Musika Eskolaren akordeoi-orkestrak emango du kontzertua. Sarrera, doan.

ABENDUAK 2, ZAPATUA

Aldatu Rock musika-iaialdia



EUSKARALDIA



Euskararen Eguna: astea, hilabetea, urtea

Atzo, gaur eta bihar. Herritarrek, elkarteek eta erakundeek. Beharginak, lanbakoek eta erretirodunek. Amama-aititek, gurasoek eta umeek. Alderdi politikoek, herri-mugimenduek eta bestelako horiek. Bertokoek, bertokotu direnek eta etorriko direnek. Mihiz, belarriz eta buru-bihotzez. Astiro, zure martxan eta arin. Ondo esandakoak, erdizka esandakoak eta txarto esandakoak. Zuzen, egoki eta jator. Buruhaustea, okerrak eta gozamenak. Erabiliz, ikasiz eta jardunez. Pentsamenduz, idatziz eta ahoz. Paperean, agerkari digitalean... eta irratian ere gurako genuke! Zuk eta biok, HIRUKAn: Uribe Kosta euskaraz. ◀

Joan den azaroaren 23an egin zuten
Euskal Herriko agerraldia.
© TOPAGUNEA

Euskaraz egin edo entzun!

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Euskarak 365 egun dinamikaren barruan, Euskaraldia ekimena abian da. Euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza-ohiturak aldatzea helburu duen ekimen hori 2018ko azaroaren 23an hasiko da, eta abenduaren 3ra arte iraungo du lehenengo edizioak, **11 egun euskaraz** goiburuagaz. Uribe Kostan, Erandio eta Getxo udalerrietan egingo dute.

Euskaraldia ekimena jaio da. Joan den azaroaren 23an aurkeztu zuten, Bilboko Arriaga antzokian. Aukeratutako eguna hori ez zen zorizkoa izan. Izan ere, urtebete barru, hurrengo urteko azaroaren 23an bertan hasiko da aktibazio-ekimen handia; gainera, euskararen lurralde osoan batera egingo da. Horrenbestez, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da Euskaraldia, hizkuntza-ohituretan eragiteko helburuagaz eta **11 egun euskaraz** goiburupean. Euskaraz berba egin edo ulertzeko gai diren herritarrak izango dira ekimeneko protagonistak; gonbidapena egingo zaie 11 egunean euren ohiko harreman-sareetan euskaraz jarduteko, inertiak apurtzeko eta euskarazko hizkuntza-praktikak bultzatzeko asmoz. Aurkezpen-ekitaldian izan ziren honako

hauek: Bingen Zupiria eta Miren Dobaran, Eusko Jaur-laritzako Hizkuntza Politikaren sailburua eta sailburordea; Paul Bilbao, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari nagusia; Elena Laka, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria; Koldo Iturbe, Getxoko Udaleko Euskara zinegotzia; Arrate Illaro, Euskaraldiaren koordinatzailea; eta Koldo Tellitu, Ikastolen Elkarteko presidentea, besteak beste. Eurakaz batera, orain arte egitasmoan laguntzeko gogoia agertu duten hainbat erakunderen ordezkariak izan ziren, Euskal Herri osokoak. Aurrerantzean ere, atea zabalik egongo da entitate gehiago ekimenera batzeko.

Ekimenaren helburua herritar euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza-ohiturak aldatzea da. Euskal Herriko hainbat elkarte euskaltzaleak urteetan landu

dute Euskarak 365 egun lan-dinamika. Uribe Kostan, Erandioko Berbots eta Getxoko Bizarra Lepoan zein Egizu elkarteak dira horren adibide. Ildo horretan kokatzen da Euskaraldia ekimena; mugarri bi ditu: batetik, hiztunen hizkuntza-ohituretan eragitea eta beraien harreman-sareetan euskara gehiago erabiltzea lortu gura du; bestetik, «hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatua denez», 2019ko helburua izango da mota denetako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea. Aktibazioak martxan ipintzea esan gura du. Hizkuntzaren erabilerari lotutako kontzeptua da, euskaraz berba egiten dakitenek edo euskara ulertzeko gaitasuna daukatenek euskara erabil dezaten lortu gura dute. Dato-



EUSKARAK
365
EGUN

CURSO
2017
2018
IKASTURTEA

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA



Bulego ordutegia:
Horario de oficina:
9:30 -17:00

Algortako etorbidea, 104
48991 - Algorta (Getxo)

TODOS LOS NIVELES MAÑANA Y TARDE
MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXÁMENES OFICIALES LOS SÁBADOS
AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK LARUNBATETAN

944 606 671

www.jagirre.net
j.a.agirre@euskalnet.net



Heldu euskarari!

PARA ALUMNOS DE 6 A 16 AÑOS
6-16 URTEKO GAZTEENTZAT

3 HORAS SEMANALES • ASTEAN 3 ORDU
17:30-19:00
lunes y miércoles • martes y jueves
astelehen eta asteazken • astearte eta ostegun

Refuerzo de la asignatura,
aprendizaje lúdico,
tiempo para preparar exámenes
y hacer los deberes.

Ikasgia sendotzeko,
ikasketa jostagarria,
etxeko lanak egiteko
eta azterketak prestatzeko.



rrer urteko 11 egun horietan, hamasei urtetik gorako herritarrak «ahobizi» edo «belarriprest» bihurtu gura dituzte. Lehenaren ardura izango da euskaraz berba egitea ulertzeko gai diren denei, eurek erdaraz erantzun arren. Bigarrenaren zeregina dakienari euskaraz berba egiteko gonbidapena egitea izango da. Edozelan ere, euskaraz hitz egiteko gai diren parte-hartzaileek eurek erabakiko dute zein hartu.

Getxon, «irribiziak» ere bai; Erandion, kanta
Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo bada ere, lekuan lekuko euskaltzaleek bultzatuko dituzte herri bakoitzeko dinamika, eta inguru soziolinguistikora eta bertoko errealitatera egokitu. Berbarako, Getxo udalerrian, Udalak eta Bizarra lepoan eta Egizu elkarteek erabaki dute hirugarren rol bat sortzea: «irribizi». Pertsona-multzo horrek euskararen aldeko jarrera agertuko eta egitasmoa babestuko du, euskaraz ulertu ez arren. Erandion ere euren ekarpen propioa egin dute, eta *Hitzak jolasean* abestia aurkeztuko dute jendaurrean datorren domekan.

Antolaketan hainbat auzotako, herritako eta eskualdetako euskaltzale-taldeek jardungo dute, baita beste elkarte, enpresa zein erakundeetakoek ere. Modu berean, Euskal Herrikan kanpoko euskal hiztunen komunitateetan ere gauza daiteke ekimena.

Herriek eta entitateek 2018ko lehenengo hiru hileroan izena eman ahal izango dute, eta udaberrian jakin ahal izango da zenbat herritan eta gunetan parte hartu ahal izango duten hiztunek. Hala ere, gaur egun, 40 udalerritik gora dabilta datorren urteko Euskaraldia antolatzen, tartean Getxo eta Erandio. Herritarrek, oster, 2018ko udagoienera izango dute Euskaraldian inskribatzeko aukera: izen-ematea 2018ko irailean zabalduko da, eta ahobizi zein belarriprest modura parte hartu ahal izango dute gura duten herritarrek. Ekimenak iraungo duen 11 egun horietan ahobizi edo belarriprest identifikazio-ikurra erabiliko dute parte hartzaileek.

Elkarlanaren garrantzia azpimarratu dute eragile denek. Azken hilabeteotan hizkuntzaren normalizazioaren bueltan dabilzan erakundeek elkarlanaren

Ahobizi



Ahobiziek euskaraz egingo diete belarriprestei eta ulertzeko gai direnei, horiek erdaraz erantzun arren. Modu berean, ezezagunei gutxienez lehen hitza euskaraz egingo diete. Identifikatzeko, goiko irudiko moduko txapa eroango dute.

Belarriprest



Belarriprest direnek euskaraz berba egitera gonbidatuko dituzte euskaraz dakitenak, eurek euskaraz edo erdaraz erantzun arren. Identifikatzeko, goiko irudiaren moduko txapa eroango dute, ahobiziek belarriprest direla jakin dezaten.

beharra behin eta berriro azaldu dute, eta Euskaraldia elkarlan hori gauzatzeko «aukera paregabea» da, euren ustez. Elkarlan-dinamika hori herrietan ere gauzatea da ekimen horren beste helburuetako bat.

Formakuntzako denbora

Arrate Illaro koordinatzaileak azaldu duenez, «Euskaraldia urtebete lehenago aurkeztu dugu, elkarlanean martxan ipintzeko eta herritarrei formazioa eskaintzeko denbora beharrezkoa delako. Elkarlanean, euskararen sustapenean lanean gabiltzan entitateen, bestelako alorretan dabilzan entitate euskaltzaleen eta herritar euskaltzaleen artean gauzatu dugu Euskaraldia», nabarmendu du.

Bingen Zupiria sailburuaren ustez, «erakundeetatik lan egin behar dugu erabilera erraz dezaketen baldintzak sortzeko; izan ere, hainbat ingurune zailagoak dira oraindik ere euskara erabili ahal izateko. Proiektu hau eraginkorra izango da bide horretan», gaineratu duenez. ◀

info+: Euskaraldia.eus / Getxoztarrak.eus (abenduaren 3tik aurrera)



Getxo

Egitaraua

Abenduak 3, domeka

11:00 Umeen kalejira, Portu Zaharretik Bizkaia Zubiraino.

12:30 Hiru kalejira irtengo dira ordu berean, hiru lekutatik: Bizkaia Zubitik, Itzubaltzeta/Romotik eta Andra Maritik. Azkenengo hori bizikletaz egingo da. Musikalia Elkartearen banda, elektrotzaranga eta txistulariak egongo dira kalejirak alaitzen.

13:00 Ekitaldi nagusia, Areetako Xake plazan egongo den karpan. Kalejirei ondoetorria, abesbatzen kantaldia, herriko ikastetxeek eta institutuek parte hartu duten bideoaren proiektzioa, testu instituzionalaren irakurketa, ekimenaren aurkezpena eta dantza-plaza, besteak beste.



Ekimen berriaren aurkezpena abenduaren 3an bertan egingo dute, Areetan.

Euskara gehiago erabiltzeko «formula» aurkeztuko dute

Eusko Jaurlaritzak eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak aro berri baten hasiera proposatu eta aldarrikatu dute Euskarak 365 egun dinamikaren bidez. Horren barruan, «ekimen berriak» bat martxan ipiniko dute; baita Getxon ere, Bizarra Lepoan eta Egizu Getxo euskara elkarteek, Getxoko Udalaren laguntzaz. Ekimen horren helburua da Getxoko

euskaltzaleak aktibatzea, hizkuntza-ohiturak aldatzea eta euskararen erabilera areagotzea. Hori dena aurkezteko, ekitaldi berezia egingo dute abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Areetako Xake plazan. Egundorretako egitaraua prestatzeko udalerriko hainbat eragilek jardun dute elkarlanean Udalagaz batera. Ekitaldia hiru kalejirek hasiko dute. ◀

Berango

Egitaraua

Azaroak 30, eguena

16:30-18:00 Zapiak egiteko tailerra, kultur etxean.

18:00-19:30 Txalaparta-tailerra, kultur etxean.

Abenduak 1, barikua

16:30-19:30 Euskal jaia eta euskal karaokea, kultur etxean.

16:00-17:30 Dantzaldia. Nagusien etxea.

Abenduak 2, zapatua

19:00 *Akabuko martxea* dokumentalaren proiektzioa; ostean, *Dominika* lana erakutsiko dute. Biak artzaintzari lotutako ikus-entzunezkoak dira. Berango Antzokian; sarrera doakoa izango da.

Abenduak 3, domeka

18:00 *Tomaxen abenturak* pailazo-ikuskitzuna egongo da, Berango Antzokian. Sarrera doakoa izango da.

Oharrak:

Kultur etxeko ekintza denetan, umeek begiraleen laguntza izango dute. Hala ere, 2009-2014 urte bitartean jaiotako umeek heldu batez egon beharko dute.



Getxo Aixerrota Boleibol Kirol Taldeak jasoko du 2017ko Argia Ereiten Euskara Saria, azaroaren 30ean, eguenean, Faturako batzar-aretoan, 20:00etan. 1999an martxan ipini zen emakumezkoen kiroltaldeak argi izan zuen bere jardunak euskaraz izan behar zuela, naturaltasun osoz. Aurton sariak itxura aldatu du: Ibon Garagartza artista gazteak egindakoa izango da, forma paraleloz osatutako eskultura, hain zuzen ere.



GEROA IKASTOLA
GETXOKO IKASTOLA
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastola publikoa

EUSKARAK 365 EGUN noznahi, nonhai, orain, hemen

Tel.: 944 604 590
geroaikastola@geroaikastola.com
www.geroaikastola.com
Maidagan kalea, 32 • Ormaza estarta z/g
Andra Mari auzoa • GETXO



EMAN HEGOAK EUSKARARI



Berango
Guztion konpromisoa
21

Erudio**Egitaraua****Abenduak 1, barikua**

- 17:30** Umeentzako tailerrak, Erandiogoikoko Gizarte Etxean.
19:00 Ekitaldia, Erandiogoikoko Gizarte Etxean.
19:30 Kalejira, Euskadi plazaraino.
20:00 Dantzak eta txokolate-edana, Euskadi plazan.
22:00 Afari magikoa Imanol Ituiño magoagaz, Dandaka jatetxean. Txartela aurrez erosi beharra dago, 20 euroan.

Abenduak 2, zapatua

- 11:30** Umeentzako tailerrak, dantza-emanaldia eta kale-animazioa, Astrabuduko Josu Murueta plazan, 14:00ak arte.
12:30 Txokolate-edana, Astrabuduko Josu Murueta plazan.

Abenduak 3, domeka

- 11:30** Umeentzako tailerrak, Altzagako Irailaren 23a plazan.
11:30 Goiz osoan, infogunea zabalik egongo da Irailaren 23a plazan. Bertan, Ahobizi edo Belarriprest dinamikaren gaineko informazioa emango dute eta simulakroa egiteko pegatinak banatuko dituzte.
12:30 Euskararen Nazioarteko Egunaren ekitaldi nagusia, Irailaren 23a plazan. *Hitzak jolasean* abestia kantatuko dute, besteak beste. Kanta hori Alex de Isusik, Iñaki Bilbaok eta Mikel Zaratek sortu dute ekimenerako, beren-beregi.
13:00 Trikitilarien eta pandero-joleen emanaldia.
13:30 Dantza-plaza.

Abenduak 4, astelehena

- 09:30** Berbodromoa, Ategorri institutuko frontoian.
11:30 Berbodromoa, Ategorri institutuko frontoian.

Berbodromoa antolatuko dute bosgarren urtez segidan

Aurten ere Erandioko Udaren Euskara Zerbitzuak berbodromoa antolatuko du, Euskararen Egunaren bueltan. Daborduko bosgarren aldia izango da, astelehenean egingo dute Ategorri institutuan. Iragarri duteenez, Urko Aristi kazetariak eta aurkezleak zuzenduko ditu saio biak, modu parte-hartzailean. Beragaz batera izango dira Ylenia Baglietto aktorea, Iholdi Beristain aktorea eta abeslaria eta kultur munduko bes-

te pertsona ezagun batzuk. Halere, osagai garrantzitsuena euskaltegi-ko eta institutuko ikasleak izango dira, eurek bihurtuko baitute Ategorri euskararen arnagune. Horretarako, bertoko eta egunerokotasuneko hiru gairen gainean berba egingo dute, lagunarteko giroan. Gai bakoitzeko 15 minutu izango dute ikasleek, berbalditxo egiteko; gainera, ordu laurdenean behin lagun-taldez aldatuko dira. ◀

info+: Erandiokoeuskarazerbitzua.com

Leioa**Egitaraua****Abenduak 1, barikua**

- 11:00** Irrati-maratoia. Hiru orduko zuzeneko saioa egingo dute EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko kideek, Leioako Audiolab irrati-estudioetan. *Streaming* bidez jarraitu ahal izango da. Kazetaritza II eta Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate sailek antolatu dute.
11:00 *Eguna, 80 urte* mahai-ingurua, Leioako campuseko liburutegian, berbaldien aretoan. Ainara Larrondo, Joseba Agirreazkuenaga, Xabier Altzibar, Beatriz Zabalondo eta Josi Basterretxea irakasleek eta adituek jorratuko dute Gerra Zibilean sortutako euskarazko egunkariaren ekarpena. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak antolatu du.

Abenduak 2, zapatua

- 11:00** Gazte-eztabaida, 2018ko Euskararen Eguna antolatzeko ideiak eta proposamenak aurkezteko, Barandiaran institutuko beheko eraikinean, 13:00ak arte. Herrigunek antolatu du. Aurretik izena ematea beharrezkoa da, 944 029 780 edo 627 503 898 telefono-zenbakien bidez.
20:30 *Miss Karaoke* euskarazko antzezlan, Metrokoadroka kolektiboak eta Pez Limbo antzeztaldeak taularatua, Topagunearen Udagoienaren Ostera zikloaren barruan. Kultur Leioako entzun-gela. Sarrera 6 edo 12 euroan eros daiteke. 14 urtez gorakoentzako saioa da.

Abenduak 3, domeka

- 11:30** Txokolate-edana, Boulevardean, 12:30ak arte.
12:30 Pac-Man Dantz! dantzaldia, Boulevardean, 13:30ak arte.
13:00 Txikiteroen kantu-kalejira. Boulevardetik, Luis Bilbao Libano kaletik eta Euskal Etxeen plazatik ibiliko dira, 15:00ak arte.
19:00 Mikel Urdangarinen eta bandaren kontzertua, *Margolaria* diskoaren aurkezpen-biraren barruan. Kultur Leioako entzun-gela. Sarrera 6 edo 12 euroan eros daiteke.



Mikel Urdangarinek ipiniko dio doinua Euskararen Egunari.

**Kalitatezko irakaskuntra euskaraz**

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jardura ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
 94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



Euskarak 365 egun
EUSKARAREN
EGUNA
 abenduak 3

Sopela



Sasoi denetako berrehun euskal kantaren baino gehiagoren zatiak agertzen dira *Ez dok hiru!* antzezlanean. © GUILLERMO CASAS - TARTEAN TEATROA

Euskal sorkuntzaz gozatzeko aukera

A benduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna denez, aste-akabu osoan hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Sopelan. Ekitaldiak bariku honetan hasiko dira, abenduaren 1ean, eta domekan amaituko dira, hilaren 3an. Hala, aukeran egongo da zerez gozatu: bertsoak, antzerkia, dantzak... baita ezusteko ugari ere. Ospakizunei hasiera emateko, musikariek lagundutako bertso-jira egingo dute bihar, Sopelako tabernetatik tabernara. Hitzordua 19:30ean ipini dute.

Biharamunean, berriz, *Ez dok hiru!* antzezlana gozatzeko aukera egongo da, Kurtzio kultur etxean. Hala, Tartean konpainiako Patxo Te-

lleria eta Mikel Martinez igoko dira oholtza gainera, eta hiru musika-aktorek lagunduko dituzte: horien artean dago Maria Arriaga algortarra. Emanaldia 20:00etan hasiko da, eta sarrerak 8 euroan salduko dituzte, ohiko lekuetan. Telleriak eta Martinezek urteak daroatzate bikote legez artista-jardunean, antzerki-obra sortzen, ekoizten eta antzezten. Denboragaz, ia oharkabean, berezko estiloa sortu dute: iturri askotatik edaten dute, baina, berezko kaligrafia dauka: aktore biren elkarrizketan oinarritzen da, berbaldi labur eta pika-tuak, azkarrak, eroak... *Ez dok hiru!* antzezlani dagokionez, euskal kantutegian oinarritutako teatro-i-

Egitaraua

Abenduak 1, barikua

19:30 Bertso-jira musikatua, Sopelako tabernaz taberna.

Abenduak 2, zapatua

20:00 *Ez dok hiru* antzezlana, Tartean Teatroa taldeagaz, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 8 euro.

Abenduak 3, domeka

19:00 *Maurizia* dantza-ikuskitzuna, Aukeran taldeagaz, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 8 euro.

kuskizuna da: «Gure modukoa: eroa, harrigarria, irrigarria azalez... Baina azal horren poro bakoitzari gure musikarekiko maitasuna dario», diote Telleriak eta Martinezek.

Euskararen Nazioarteko Eguneko Sopelako egitaraua domekan bertan amaituko da: orduan, Edu Murumendiarek zuzentzen duen Aukeran Dantza Konpainiak *Maurizia* ikuskizuna taularatuko du, Kurtzio kultur etxean. Kar mele Jaio euskal idazleak sortutako testu batean oinarritzen da lana; *Maurizia* Aldeiturriaga zeberrioztar pandero-jolea zenaren bizitzan dauka abiapuntua. Emanaldia 19:00etan izango da; sarrerak 8 euroan salduko dituzte. ◀



haur hezkuntzatik
batsilergora

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA
94 676 02 66 • 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



Plentzia eta Gorliz

Ikus-entzunezko ekitaldia eskainiko du musika-taldeak, zapatuan, Gorlizen. © ENEKORA

Egitaraua**Abenduak 2, zapatua**

19:00 Enekora taldearen kontzertu bizia, dantzak eta proiektio bisualak, Gorlizko Eliz enparantzan.

Abenduak 3, domeka

Goiz osoan Dantza-plaza, Plentziako Eliz plazan, Itsaseder eta Plentziako dantza-lagunak dantza-taldeek ekimenez.

Ondoren Herri-bazkaria, Gorlizko Eliz plazan. Horretan izena emateko alde aurretik egitea beharrezkoa zen. Bazkariaren prezioa 10 eurokoa da.

17:00 Familia osoarentzako *La familia Toronbole* antzezlan, Gorlizko Eliz plazan.

Abenduak 4-15

ArgiHizkiak lehiaketaren erakusketa ikustea aukeran egongo da Plentziako Goñi Portal kultur etxean. Erakusketa osatzen dute Uribe Kostako 10 argazkilarik proposatutako irudi banak eta horiek oinarri dituzten lehiaketara aurkeztutako testu labur eta labur-labur onenek.

Abenduak 15, barikua

19:00 Bertso-jira musikatu, Onintza Enbeita eta Jon Maia bertsolariak, Plentziako Eleiz plazatik abiatuta.

Abenduak 16, zapatua

18:30 *Kutxaka: ipuinak eta marrazkiak* euskarazko ipuin kontalaria, Sertutxena kultur etxean.

Barrika**Euskararen aldeko kirol-jaiak San Telmo auzoan, domekan**

Barrikotzarrek joan den domekan ospatu zuten Euskararen Eguna, azaroaren 26an, Horretarako, askotariko jardueraz gozatzeko aukera izan zuten auzokideek zein inguruko herrietatik hurreratutako bisitariek; berbarako triki-poteoa, herri-bazkaria eta Monda Lironda pailazoen ikuskizuna egon ziren. Hala ere, euskarari gorazarre egiteko ekitaldiak ez ziren egun horretan amaitu, eta oraindino gure hizkuntzaren alde egiteko zenbait ekitaldi egongo dira

udalerrian. Hala, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Goazen Up elkarteak kirol-jaiak antolatuko du. Goizeko 10:00etan ipini dute hitzordua, San Telmo auzoan, Unbe kaleko 18. zenbakian. Bertan, askotariko jarduerak egingo dituzte, esaterako herri-kirolak, SUP, garbiketa eta hamaiketakoa. Jarduera horietan parte hartu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute, ekimen denak doakoak izango badira ere. ◀

izen-ematea: goazenup@gmail.com

Urduliz**Egitaraua****Abenduak 1, barikua**

16:00 Umeentzako ekintzak, Elortza eskolan.


16:15 Umeentzako merienda.

16:30-18:00 Disko-festa, gorputzak mugitzeko egundoko aukera egongo Elortza eskolan.

18:00-18:30 Herriko pandero-joleek eta trikitilariak girotuta, kalejiran joango dira kultur etxeraino.

18:30 *Katillukadak* txotxongilo-ikuskizuna, kultur etxean. Bertsolariak eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna da, txotxongiloen bidez:

Katillu bertsolari ohia da. Azken hogeita hamar urteetan, herriz herri ipuinak kontatzen dihardu, bere lagun txotxongiloak batera. Bera da «txiringito»ko burua. Orain, sukaldari; orain, foku-teknikari; orain, dantzari; orain, bertsolari... Denetarik egiten du eta zeregin baten eta besteren artean... ipuinak kontatzen ditu. *Katillukadak* txotxongiloak manipulatzeko bost teknika erakusten dituen antzezlan da. Lau ipuin labur antzezten dira; bakoitza, teknika banagaz, eta, bakoitza, mezu banagaz ere bai.

Lemoiz**Euskarari gorazarre egiteko jaialdia, Armintzako frontoian**

A benduaren 3a izanda Euskararen Nazioarteko Eguna, Euskal Herriko txoko askotan eta askotan ekitaldiak antolatzen dira. Hala, Lemoizen ere euskarari gorazarre egingo diote egunean bertan: lehenengo hitzordua 16:00etan ipini dute, Armintzako frontoian. Bertan, Tor Magoak magia-erakustaldia egingo du denon gozamenerako. Ostean, Beti Martxan disko-festa egongo da, 17:00etatik 19:00etara. Amaitzeko, txokolatea banatuko dute bertaratuko diren denon artean, 19:00etatik 20:00etara. ◀

Hitza emanda

**Euskara**

Abenduak hiru ta euskal jai itzela, baina segiko dugu gaur arte bezela, ez badugu ulertzen hori egun bat dela ta euskararen egunak guztiak direla!



JAGOBA PEREDA TXOPITEA
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.

**AIXERROTA BHI IKASTETXEA**

Batxillergoak:

• Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak

Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Hiru hizkuntzako hezkuntza-eskaintza

euskaraz bizi nahi dut

Informazio + :
www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

**EUSKARAK
365
EGUN**

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK

BASQUE
LABEL
HARATEGIAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —

GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

GETXO:
CARNICERÍA ESTEBAN - Ganeta, 3 Romo-Las Arenas

SOPELA:
CARNICERÍA EIZMENDI - Doctor Landa, 1

hazi

Euskadi, auzolana
**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

GETXO

Kepa Altonaga, UKITXek gonbidatuta

Bariku honetan, azaroaren 30ean, Kepa Altonaga Algortako kultur etxean egongo da, *Patagoniara Hazparnen barrena* liburuaz berba egiteko. Ekitaldia 19:30ean izango da; sarrera, doan.

info+ www.egizu.eus

GORLIZ

Andra Mari Sortzez Garbiaren Eguna

Abenduaren 8an, barikuan, Andra Mari Sortzez Garbiaren Eguna ospatuko dute, Gorlizko elizako plazan. 10:00etatik 15:00etara arte, berbarako azokaz eta karakol-txapelketaz gozatzeko aukera egongo da.

ERANDIO

Gazta-tailerra egingo du Lutzana Existek

Zapatu honetan, abenduaren 2an, gazta freskoa egiteko ikastaroa antolatuko du Lutzana Existe auzokideen elkarteak, bertoko eskola zaharrean; 18:00etatik 21:00etara egingo dute.

izen-ematea: lutzanaexistehotmail.com

Bigarren eskuko azoka

11:30 | Nagusien etxeko plaza | Berango izen-ematea, azaroaren 30era arte.

BERBALDIAK

ABENDUAK 12, MARTITZENA

Erandioko bide publikoak erabiltzearen eta horiez gozatzearren gainean

19:00 | Erandiogoikoko gizarte-etxea
Herri Bideak Kate Barik elkartegaz. Doan.

BERTSOLARITZA

ABENDUAK 9, ZAPATUA

ALBE Gala 2017

19:00 | Basalbo jatetxea | Getxo

Andoni Egaña, Alaiia Martin, Ibon Ajuuria eta Xabi Paia bertsolariak parte hartuko dute. Gainera, Balendin Enbeita bertso-paper-lehiaketaren sariak banatuko dituzte. Informazio gehiago: albegetxo@gmail.com

ERAKUSKETAK

ABENDUAREN 9TIK 31RA ARTE

Bosteko 2017

Torrere Aretoa (Algorta) | Getxo

Berbarako Usoa Fullaondo algoritharraren lanak ikusgai egongo dira. Sarrera, doan.

ABENDUAREN 11RA ARTE

Harriet antologikoa: gidoilaria

Xake plaza (Areeta) | Getxo

Komikien erakusketa. Sarrera, doan.

Daniel Gojénola: Zinekomik

Glass Grill Urbano (Areeta) | Getxo

Komikien erakusketa. Sarrera, doan.

ABENDUAREN 23RA ARTE

Igarotzeak

Zirri-marra arte-tailerra (Anboto, 2) | Getxo

Mertxe Perizen artelanak. Sarrera, doan.

JAIK

AZAROAK 30, EGUENA

San Andres Eguna

11:00 | Baseliza | Barrika eta Sopela

Bakoitzak bere herrian ospatuko du San Andres Eguna; izan ere, santu horren omeneko Baseliza bana dago Barrikan eta Sopelan. Meza, hamaiketakoa eta musika-emanaldia egongo dira, leku batean zein bestean. Sopelatik Baselizara joateko, autobus-zerbitzu berezia ipiniko dute. Info+ www.barrika.eu/ www.sopelaudala.org

20:00 | Prest aretoa (Ibarrabarr) | Leioa
Ansa, Northern Mist, Horas Muertas, Deborah Riff eta Dr. Hyde taldeek joko dute. Itsulapikoan bidez batutako dirua Leioako EPI y BLAS elkarteari emango diote. Sarrera, doan.

ABENDUAK 3, DOMEKA

Dantzaldia

17:30 | Altzagako azoka zaharra | Erandio
Los Palmeras orkestragaz. Sarrera, doan.

ABENDUAK 5, MARTITZENA

Piano-entzualdia

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Erandioko Musika Eskolak antolatuta. Doan.

TOPAKETAK

ABENDUAK 1, BARIKUA

Erandioko III. Berdintasun

Planaren aurkezpena

18:00 | San Agustín plaza, 1 | Erandio
Altzagako Emakumeen Elkartearen egoitzan egongo dute. Sarrera, doan.

ZINEMA

AZAROAK 30, EGUENA

La habitación

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Izartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

ABENDUAK 1, BARIKUA

Volar dokumentala

19:00 | Kultur etxea | Urduiz

Emakundek ekoiztutako ikus-entzunezko lana. Bertha Gaztelumendik zuzendutako pelikula indarkeria jasan duten bederatzai emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Gaztelaniaz. Doan.

ABENDUAK 9 ETA 10

Lego Ninjago

17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro.

ABENDUAK 9, ZAPATUA

Animales fantásticos y dónde encontrarlos

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Filma 10 urteik gorako ikusleentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

ABENDUAK 10, DOMEKA

Vaiana animazio-filma

18:00 | Berango Antzokia | Berango

Gaztelaniaz. Sarrera, doan.



Metrokoadroka eta Pez Limbo taldeek emanaldia egingo dute, Topagunearen Udagoleneko Ostera egitasmoaren barruan. © METROKOADROKA

Miss Karaoke antzezlan, Leioan

«Zerk definitzen zaitu?», «Identitatea aukeratu egiten da, edo identitateak aukeratzen zaitu zu?». Modu horretako galderai erantzuna emango die Miss Karaokek, bere bame ahotsakaz talkan. Umorea, absurdoa eta performance-aria batzen dira eszena-lan honen taularatzean.

Noiz: Abenduak 2, zapatua.

Ordua: 20:30.

Non: Kultur Leioako entzungela.

Zeinentzat: 12 urteik gorakoentzat.

Hizkuntza: Euskara.

Sarrera: 6-12 euro.

argi
hizki
ak²⁰¹⁷

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
VI. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Abenduaren 4tik 15era arte

Gofi Portal kultur etxea (Plentzia)

EGIZU!



hiruka

«Urte luzez emakume bakarria izan naiz gizonen munduan; hori aldatzen saiatzen nabil»

Elena Caballero La basu rap-abeslari euskaldunak azaroaren 27an plazaratu zuen *Ni naiz izotz erregina* diskoa; Durangoko Azokan kantatuko du domekan. Horrez gainera, rap feminista ikastaroa emango du Plentziako Danontzat gaztetxean, abenduaren 7an, 14an, 22an eta 29an, 18:00etatik 22:00etara arte; leku horretan edo Plentziako eta Gorlizko gazte-topaguneetan izena eman daiteke.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Zelan hasi zinen rap-musikaren munduan?

Daborduko 21 urte daramatzat rap-munduan. Hasi nintzenean, Bilbon ez nuen ezagutzen musika-estilo honetan aritzen zen lagunik. Udak Burgosko herriri batean igarotzen nituen; bertan, grafitiak egiten zituen mutil bat ezagutu nuen, eta berak utzi zidan entzun nuen lehenengo rap-zinta. Entzun nuenean argi ikusi nuen nik egin nahi nuena horixe bera zela; egia esan behar badut, oso gutxi ulertzen nuen, letrak ingelesez zeudelako. Baina, txikitatik olerkiak idatzi izan ditudanez, erritmo horiek nire mezuak zabaltzeko oso egokiak zirela ikusi nuen. Hori izan zen raparekin izan nuen lehenengo kontaktua.

Hala ere, ez zara rap-musikara bakarrik mugatzen.

«Musikaren maitaletzat» daukat nire burua. Rapaz aparte, uste dut estilo denak entzun edo joratu ditudala. Alde batetik, nire aitona kubatarra da; bestalde, nire etxean betidanik entzun izan da protesta-kutsua daukan musika, flamenkoarekin batera. Horrez gainera, nire neba nagusiak punka, rocka eta euskal musika entzun izan du beti. Niri ere hori dena sartzan zitzaidan belarrietatik, txikia nintzenean; eta oraindik ere musika-estilo horiek entzuten jarraitzen dut. Nik rapa egin arren, jakin badakit musika oso ona dagoela hortik; denetarik entzuten saiatzen naiz, eta estilo berriak probatzen ere saiatzen naiz. Ez naiz musika-estilo konkretu batera mugatzen; abestiak sortzen ditudanean ez dut rapa bakarrik kontuan hartzen.

Nondik datorkizu *La basu* goitizena?

Kar, kar. Tontakeria da; baina, horrela sortu ohi dira goitizenak. Jende askok pentsatzen du *La basu* deitzen didatela txikia naizelako... ezta urrutitik ere! Gazteagoa nintzenean, gaur egun Fever edo Santana 27 izena daukan aretora joan nintzen kontzertu bat ikustera; Abierto hasta el amanecer deitzen zen

“Oso garrantzitsua da emakumezkoek raparen munduan bizi izan duguna gizonetzkoek ere ezagutzea”

orduan, eta zulo zikin bat besterik ez zen. 7 Notas 7 Colores talde bartzelonarrak kantatu behar zuen; kontzertua ikusi eta, aretotik irten ginenean, hainbat rap-abeslari topatu genituen kalean errimak egiten. Aitortzen dut baxua naizela... hori dela eta, hobeto ikusteko, zarama-ontzi batera igo nintzen. Zoritxarrez, kontainerraren plastikozko tapa apurtu egin zen eta barrura erori nintzen. Ordutik, *Basura* deitu izan didate urte askoz; azkenean, *La Basu* ezizenarekin geratu naiz. Ez da txantxetako kontua! Kar, kar. Izan ere, Elena da nire benetako izena; arropak txuri-txuri uzten dituen detergente baten marka

bezalakoa, alegia. Orain ez dit inork Elena deitzen; hori gutxi ez balitz, etxean, Basu izekoa naiz... Zarama-ontzi batekin gertatutakoaren ondorioak dira.

Jungla Urbana sortu zenutenean ez zegoen emakumez osatutako rap-talde askorik, ezta?

Ez garai haietan, ezta gaur egun ere. 1999an sortu genuen Jungla Urbana, eta taldea desegin genuenean umezurtz utzi genuen Euskal Herria: ez da berriro sortu rapa egiten duen emakumezkoen talderik. Ez dakit noiz izango den, baina espero dut horrelako bandaren bat berriro sortzea. Gizonezkoen mundu batean murgilduta nengoan, bakar-bakarrik; hamar urtez ibili naiz, Bilbo inguruan, rapa eginez, emakume bakarria izanda... Lau lagun elkartu nituen emakumeek bakarrik sortutako talde bat osatzeko; hala ere, ez genuen diskorik grabatu, dirurik ez geneukalako. Horrez gainera, orduko rapzaleei arrotz egiten zitzaien Jungla Urbana bezalako talde bat taularen gainean ikustea...

Gaur egun, emakumeek egindako rap-musikan erreferenteetako bat zara...

Agian, asko esatea da. Gauzak aldatzen ahalegindu izan naiz beti.

Zelakoa da emakumeen egoera rapean?

Euskal Herrian eta Espainian rapa abesten zuten oso emakume gutxi egon da urte askoan. Zorionez, gauzak aldatzen doaz pixkanaka. Egia da gaur egun



emakumezko gehiago dagoela mundu honetan; horietako asko euskaraz errimak egiten ahalegintzen dira. Hala ere, oso gutxi gara oraindik. Raparen mundua oso matxista da: gaztea nintzenez, agerlekura igotzerakoan, mikrofonoa oso modu txarrean ematen zidaten; «ia zer dakizun egiten» esaten zidan batek baino gehiagok. Nik beti esan dut emakumea izateagatik bakarrik, bizitza honetan, gauzak birritan egitera behartzen zaituztela; rapean, hirutan edo lautan errepikatu behar izaten dituzu. Ez da erraza: nik ikastaroak ematen ditut; emakumeak ikastera etorri arren, gero ez dira oholtzara igotzen ausartzen.

Bidean oztopo asko aurkitu dituzu?

Zaila izan da; kritika denen jomuga izaten zara beti. Hala ere, nire bizimodua da; argi neukan hau egin nahi nuela. Jendeak esaten duenak, bost axola!

Eskina Femenina proiektuaren sortzaileetako bat zara. Zein da horren helburua?

Orain dela lau urte sortu genuen Eskina Femenina proiektua Aneguriak eta biok. Raparen munduan emakumeak egon arren, erabat ezezagunak ziren; gutxienez, guk ezagutzen genituen emakumezko musikarien lanak batzen saiatu ginen, Youtubeko kanal batean. Ondoren etorriko zen Irola Irratiko irratsaioa: emakumeek egindako rap-abestiak bakarrik ipintzen genituen. Bestalde, hiru urte beteko dira Bazter Fest jaialdia egiten hasi ginenetik, Bilbo Rock aretoan; aurtengo festibala abenduaren 16an izango

da. Emakumezkoak izaten dira oholtzara igotzen diren rap-abeslari denak; hala ere, kanpotik ekartzen hasi behar izan dugu. Izan ere, Euskal Herrian daudden denek dagoeneko parte hartu dute jaialdian. Eskina Femenina guztiz beharrezkoa zen rapa egiten duten emakumeen lana zabaltzeko; hip-hoparen kultura zabala da, eta grafitiak edo break dance egi-

“ Rapa euskaraz egiten jakin badakigu Euskal Herrian; eta egon badaude horretan diharduten emakumeak ”

ten duten artista bikainak daude. Ikastaroei dagokieenez, ikastetxeetan hasi nintzen rapa zelan egiten zen umei erakusten. Halako batean, tailer bat ematera joan nintzen eta zera esan zidan mutiletako batek: «Zu zara ikastaroa emango duena? Ezin daiteke izan: emakumezkoa zara eta zure generokoek ez dakite horrelakorik egiten». Kolpe gogorra izan zen; baina, argi eta garbi ikusi nuen hori aldatzea beharrezkoa zela. Gauzak horrela, Aneguriagaz ere horrelako tailerrak egiten jarraitu nuen, jendeari gure mundua zein den erakusteko. Abenduan, Plentzian egingo dugu rap feministaren gaineko tailerra.

Ikastaro hori emakumeentzat da bakarrik?

Ez. Hori argi gera dadila nahi dut: ikastaroak egiten ditugu batzuetan emakumezkoentzat, besteetan gizonzkoentzat, eta hainbatetan gizonek zein emakumeek osatutako taldeentzat. Oso garrantzitsua da emakumezkoek rap-munduan bizi duguna gizonzkoek ere ezagutzea. Eskina Feminista deitu arren, genero denetako jendea etor daiteke tailerretara.

Kontzertuak eten behar izan zenituen 2002an. Musikak lagundu zizun arazo horretatik ateratzen?

Musika nire bizimodua da. Urte asko eman nituen gaixorik; eta, sendatu nintzenez, lagunentzako eta senideentzako disko bat egiteko gogo bizia piztu zitzaidan. Ez nuen besterik behar. Azkenean, lortu nuen egitea. Orduetik aurrera dena ondo joan zait. Nire sentimenduak eta bizipenak barrenetik ateratzeko egiten dut rapa; musikak egunero laguntzen nau. Musika ipintzea da ohetik altxatzen naizenean egiten dudana lehenengo gauza; indar izugarria ematen dit musikak, egunari aurre egiteko.

Rapa euskaraz egitera ausartu zinen 2016an...

Bai. Urte horretan plazaratu nuen *Izotz erregina* EPA; duela egun batzuk, azaroaren 27an, argitaratu nuen *Ni naiz Izotz erregina* diskoaren aurrerapen bat zen. Nik euskaraz egin ditut beti ikasketak; kontua da nire etxekoek zein gertuko jendeak ez zekiela hizkuntza horretan hitz egiten. Hori dela eta, gaztelaniara jotzen nuen. *Aire es vida* (2015, Taupaka) diskoarekin nenbilela konturatu nintzen rapa euskaraz egiten zuen emakumerik ez zegoela; «hau aldatu egin behar da» esan nion neure buruari. Aitortu behar dut niretzat erronka handia izan zela: 15 urtez egon nintzen euskaraz hitz egin barik; guztiz ahaztuta neukan. Baina, saiatzea erabaki nuen eta, hasteko, *Trakamatraka* bideoak kaleratu genuen Aneguriak eta biok, 2015ean. Alde guztietatik egurra emango zigutela uste genuen; baina, kontua ondo joan zen, eta euskal rapa egiteari ekin nion.

Ez da erraza izan...

Zirriborroz betetako koaderno asko dauzkat etxean... 2016an kaleratu genuen lan horrek hiru abesti baino ez zeuzkan. Baina, azaroaren 27an plazaratu genuen *Ni naiz Izotz erregina* diskoa euskara hutsean eginda dago, oso-osorik; eta kolaborazio denak emakumezkoek egin dituzte.

Zer espero duzu disko honetatik?

Ez dut ezer berezirik espero; neure buruarekin lasai geratzeko egin nuen. Gertatuko den guztia ondo etorria izango da; ziur nago kritika asko izango ditudala. Jendeak abesti hauekin dantzatzea ere espero dut. Hori alde batera utzita, orain ozenago esan daiteke euskaraz ere rapa egiten badakigula Euskal Herrian, eta hori egiten duten emakumeak badaudela.

Non entzungo zaitzakegu hurrengo egunetan?

Azaroaren 30etik aurrera, Euskal Herria ordezkatzeko dut hizkuntza gutxituen aldeko jaialdi batean; festival gutxitan kontuan hartzen dute rapa, are gutxiago emakumezkoek egiten dutena. Niretzat ohorea da jaialdi horretan abesteko aukeratu izana. Bestalde, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan joko dut abenduaren 10ean, igandean; horrez gainera, Talka Records argitaletxearen salmenta-postuan egongo naiz diskoak saltzen eta sinatzen. ◀

Sopelan erabakiko dira txapelak



Urrian hasi zen lehiaketa. © EMC

Kaiolako finalak jokatuko dira abenduaren 6an, Sopelan. ETB1ek zuzenean emango ditu. Aurreneko aldiz, lau t'erdiko txapelketa jokatuko dute banaka emakumeek.

Sopelako udal-frontoian jokatuko dira Emakume Master Cup esku-pilotako lehiaketaren finalak, datorren abenduaren 6an. Goizeko 12:00etan hasiko da lehenengo mailako finala, ostean elite-kategoriakoa jokatuko; lehia biak 4 t'erdian eta banaka egingo dituzte. Lehenengo mailan, Urolako

derbia jokatuko dute Eneritz Arrieta azkoitiarrak eta Maite Iriarte azpeitiarrak. Elite mailan, ostera, Leire Etxaniz etxebarritarra izango da bizkaitar denen ordezkaria, Maider Mendizabal anoetarragaz izango duen aurrez aurrekoan. Partida biak zuzenean ikusi ahal izango dira udal-frontoian bertan edo ETBko lehenengo katearen bidez.

Elite mailako pilotari biek badakite zer den elkarren aurka finala jokatzea, izan ere, martxoan norgehiagoka jardun zuten binakako txapelketaren finalean, Zornotzan. Orduan, Olatz Arribabalagagaz batera, Etxaniz nagusitu zitzaion Mendizabalek eta Nagore Arozenak osatutako bikoteari.

Urritik hona egindako ibilbideagaz pozik eta Sopelako finalera begira baikor agertu da pilotari etxebarritarra: «ea orain arteko maila ematen dudan final handian eta txapela ekartzen dudan etxera», azaldu du Etxanizek. De-

nera, Euskal Herri osoko eta Euskal Herritik kanpoko 70 pilotarik parte hartu dute Emakume Master Cup txapelketako bi mailatan. Patxi Ziskar Kurere elkarteko delegatua pozik dago txapelketagaz: «pilotaren eta emakumeen alde egiten den dena oso mesedegarria da, eta ahalik eta partida gehien antolatzea, guretzat hobeto». Gainera, uste du bertoko harrobiarentzat positiboa dela Sopela finalerako aukeratu izana: «erakusgarria izango da Euskal Herri mailan dauden pilotari onenak Sopelan egotea».

Olentzero Saria jokatuko dute Erandion

Erandion Gabonak ez dira zuriak, zuri-beltzak eta karratuak baidiz. Izan ere, bertoko S. P. Erandio askotariko kirol-elkarteak Olentzero Xake Txapelketa antolatuko du abenduaren 24an, azken urteotan legez. Hitzordua Astrabuduko ambulatorio zaharrean ipini dute, goizeko 09:30etik 13:30era. 2004an edo geroago jaiotakoek parte har dezakete eta izena elkarrean webgunean abenduaren 22a baino lehenago eman beharko dute. Iazko txapelketan 150 bat umek eta nerabek parte hartu zuten; aurten 130era mugatu dute. Leku berean, baina egun batzuk lehenago,



CC-BY-NC-ND TIM S.

26. urtez antolatuko dute Nazioarteko Xake Sariketa. Lehiaketa abenduaren 16tik 23ra egingo dute, arrastietan. Inskripzioa elkarrean webgunean bete daiteke, abenduaren 15era arte. ◀

info+: Sperandio.info

Itzubaltzeta, umeen eskubaloi-topagunea

Datorren zapatuan, eskubaloi-topaketa antolatuko du Romo Eskubaloi kirol-taldeak Gobela kiroldegian. Saioa 6 eta 11 urte bitarteko neska-entzuten da. Parte-hartzaile denek txanda bakarrean jardungo dute, goizeko 10:30etik 12:30era. Ekimen horretarako hainbat joko eta ariketa prestatu dituzte Itzubaltzetako eskubaloi taldeko kideek; adinaren arabera, joko eta ariketa ezberdinez gozatzeko aukera izango da. Getxo Kirolak udal-erakundeak lagunduko du ekimeneari; askotariko kirolen programako ikasleei gogorarazi die kirola egiteko arropa eroan behar izango dutela. ◀

Estalpeko arraunaren festa, Faduran

Estalpeko Arraunaren Herri-estropada egingo dute zapatu honetan, abenduaren 2an, Fadurako kiroldegian. Bosgarren aldiz, ehunka arraunlari lehiatuko dira ergometroaren aurka. Getxoko ENZ estalpeko arraun-klubak antolatzen du ekimena lehenengo edizioa egin zenetik, Getxo Arraun Taldeagaz batera. Aurreneko aldiz, aurten, 12 urtez azpiko neska-entzuten minutu bateko tiraldia egingo dute; 12-14 urte bitartekoek minutu bikoa. Txikienek emango diote hasiera lehiari, goizeko 09:00etan. Ostean, ordena adinaren arabera izango da. ◀

info+: Remoindoorgetxo.com

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa




SARIA

Kultur Leioaren ekimenez, **Soka** ikuskizunaz gozatzeko 3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Abenduaren 15eko antzezlanaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, abenduaren 8a (barikua) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Azaroko saria

Udagoien koloretako bufanda eta txanoa



HIRUKAzale bati esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean. Zozketan parte hartzeko, bidali azaroaren 30a (eguna) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

+ Guardiako farmaziak, abenduaren 13ra arte

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Abenduaren 2an, zapatuan, 09:00-14:00.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 11n, astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Abenduaren 4an, astelehenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik martitzenerako 09:00ak arte.

Erandio

ARRIOLA. Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022. Abenduaren 2an, zapatuan, 09:00-14:00.

ARRUTIA. Obieta, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan (abenduaren 6an, eguaztenean, salbu), 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Abenduaren 9an eta 10ean, zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

GARCIA. José Luis Goioaga etorbidea, 25. ALTZAGA. 944 671 496. Abenduaren 6an, eguaztenean, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Abenduaren 2an eta 3an, zapatuan eta domekan, 09:00-22:00; abenduaren 9an, zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuetan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuetan, 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Azaroaren 30ean, eguenean, eta abenduaren 10ean, domekan, 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuetan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; domeketan eta abenduaren 6an eta 8an, 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00.

ESQUISABEL. Algortako Etorbidea, 32. ALGORTA. 944 602 529. Abenduaren 8an, barikuan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egutero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egutero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan salbu), 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan salbu), 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 600. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; zapatuetan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan (abenduaren 8an, barikuan, salbu), 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 8an, barikuan, 09:00-13:30; zapatuetan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan (abenduaren 6an

eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 3an, domekan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuetan (abenduaren 8an, barikuan, salbu), 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Abenduaren 2an, zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; abenduaren 9an, zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Abenduaren 1ean eta 6an, barikuan eta eguaztenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Abenduaren 2an, 3an, 5ean eta 13an, zapatuan, domekan, martitzenean eta eguaztenean, 09:00-22:00.

SÁNCHEZ. Estartetxe kalea, 23. 944 800 802. Abenduaren 10ean, domekan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Azaroaren 30ean, eguenean, eta abenduaren 11n, astelehenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artatza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan (abenduaren 6an, eguaztenean, salbu), 09:00-22:00; zapatuetan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egutero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Abenduaren 9an, zapatuan, 09:00-13:45.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan (abenduaren 6an, eguaztenean, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 3an eta 8an, domekan eta barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Egutero, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 5ean, martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 9an, zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 12an, martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 10ean, domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

•**PARAMO.** Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan (abenduaren 6an eta 8an, eguaztenean eta barikuan, salbu), 09:00-22:00; abenduaren 1ean, barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; abenduaren 2an, zapatuan, 09:00-13:30.

HIRUKIRA OLGETAN






SOLUZIOAK:



© Garbine Ubeda



Basoan GalduTa

- 1 Zenbat otso ikusten dituzu?  Eta zenbat untxi?
- 2   3 Badago sugerik? Zenbat?
- 4  Badago kirikinorik? Zenbat?
- 5  Badago txoririk? Zenbat?
- 6  Badago arratoirik? Zenbat?
- 7  Eta lukirik?


Zazpikoa

Topa itzazu irudi bi hauen artean dauden zazpi desberdintasunak.



Zenbat hosto jango ditu beldarrak kuskuan sartu aurretik? Jakin gura baduzu, beldarra dagoen lekutik hasi eta, hostoz hosto, kuskuraino heldu behar duzu; ezker, eskuma, gora edo behera mugituz (diagonalean, ez).

Beldar Gosetia



Uso-pasa

Udagoiengan hegazti askok migrazioa egiten du. Hemengo hauetatik gehienak bikoteka doaz hegan. Topa egizu bikirik ez duen bakarra.



Pareak

Zein da behin bakarrik agertzen den elementua?



Behaketa

Hona hemen Maripurtzil bi egoera guztiz desberdinetan. Goiko honetan istripu txikia izan du. Behekoan lasaitu ederra hartzen dabil.



Hala ere, badira 6 elementu marrazki bietan errepikatzen direnak. Zeintzuk ote dira?



Lehiaketa Non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA Ilea ebakitzeko **BONUA familia osoarentzat**

Marsun ile-apaindegiaren ekimenez, familia bereko 4 kidek (nagusi 2, gehienez) ilea garbitzeko eta ebakitzeko bonua irabaz dezakete.

Bonua lortu gura baduzu, abenduaren 16a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Flashback

Geroa ikastolakoak, aldarrikapen-egunean, 1982

Korrikari ondoetorria egiteko egunean atera zen argazkia; bigarren edo hirugarren Korrika izango zen, 1982a edo 1983a. Euskararen aldeko aldarrikapen-lasterketan parte hartzeaz gainera, beste eskari bat ere bazuten Geroa ikastolako ikasleek: ordurako txiki lotu zitzairen euskarazko hezkuntza-zentroaren eraikina zaharberritzea, handitzea, gura zuten. Hala, Geroako ikasleak kalera irten ziren egun hartan, aldarrikapen edo protesta bikoitza aldean.

Makurtuta: ① Xabi Pereda, ② Iratxe Villagrà, ③ Gorka Torre, ④ Saioa Llanos, ⑤ Jon Blanco, ⑥ Iñaki López, ⑦ Jon Ander Totorikaguena eta ⑧ Arrate Monasterio.
Zutunik: ⑨ Kepa Diego, ⑩ Aitor Villagrà, ⑪ Aitor Monasterio, ⑫ Roberto Leturiondo, ⑬ Gorka Aranzibia, ⑭ Haritz Llanos, ⑮ Enekoiz Perea, ⑯ Eñaut Perea, ⑰ Asier Diliz, ⑱ Jon Ruíz, ⑲ Ainhoa Blanco, ⑳ Beronika López eta ㉑ Larraitz Bueno.



© KARLA LLANOS ETXABE



Uribitakora

TESTUA

Paule Iziar Loizaga Legarra

DOINUA

Ama Birjina Erkudengoa

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Uraren gazi-gozoa

Mundua bitan bereiz daiteke sari askoren kaltean.
Batzuk inguru zikin batean, besteok gure bakean.
Ta lasai asko biziko gara bakoitza bere tartean,
gainontzekoak berdin baitigu garbi gauden bitartean.

Argazki hortan arrainak dira eredu horren testigu;
eskama batek gure eskemak argi islatzen dizkigu.
Nahiz gure aldean ta igerian lasai gabiltzan beti gu...
ur korronteak noizbait kaltea bueltan ekarriko digu!

Lokaztutako muga bat ere ikus dateke erdian,
ta badakigu nor bizi den non, nor ondo, nor miserian...
Urak beragan duen gazia ta gozoa igerian,
inoiz egongo al gara denok ur berean igerian?



Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua